

# Euskal biruskontrakoa euskaraz

**Josu Waliño Pizarro**  
Informatikan lizentziatua

**Jakina da munduko biruskontrakorik erabiliena Bilbon garatuta dagoela. Panda Antivirus softwareaz ari naiz. Produktu hori Bilboko Panda Software etxeak garatu du urteetan, baina orain arte ez du euskarazko bertsiorik kaleratu. Biruskontrako berritua kaleratu du orain, ordea, eta oraingoan produktua euskaraz kaleratu du gainera. Biruskontrakoaren euskaratze-lana Elhuyarrek egin du.**

PANDA SOFTWAREK GARATUTAKO AZKEN BIRUSKONTRAKOA euskaraz dago erabiltzaileen eskura. *Panda Antivirus Titanium* da produktu berri horren izena, eta ekainaren hasieratik egongo da merkatuan. Produktu hori, merkatuan dagoen biruskontrako ahaltsuena dela

esan dute, eta bai erabiltzeko errazena ere. Orain, gainera, euskaraz ere bada go erabiltzaile eskaldunen eskura, Elhuyarrek egin duen itzulpenari esker.

## **Biruskontrako ahaltsua**

Birus berriak egunero sortzen direlako, komenigarria izaten da biruskontrako eguneratuta izatea. Horretarako, biruskontrakoaren bertsio berriagoa erosi edo Internetetik behera kargatu egin ohi da, eta ondoren, instalatu. *Titanium*-ak, ordea, eguneratze automatikoak eskaintzen dizkio erabiltzaileari; horrela nahikoa da biruskontrako instalatu



*“birusak ezabatzeaz gain, horiek eragindako kalteak konpontzeko sistema bat gehitu diote”*

eta ahaztea, ez baitago etengabe eguneratzen ibili beharrik. Automatizazio hori honela egiten du: erabiltzailea Internetera konektatzen denean, biruskontrakoak une hori aprobetxatzen du




bertsio berriagorik ba ote dagoen aztertu eta, hala bada, behera kargatzeko. Horrela, etengabe eguneratuta egongo da gure ordenagailuaren babesa, kezkatu beharrik gabe.

[ *“merkatuan dagoen biruskontrako ahaltsuena dela esan dute, eta bai erabiltzeko errazena ere”* ]

Gainera, biruskontrakoak duen motor berria edozein birus antzeman eta ezabatzeke gai da, baita posta elektronikoa edo Internetetik behera kargatzen diren fitxategietatik ere. Eta hori Pandaren aurreko biruskontrakoek baino % 30 azkarrago egin dezake. Halaber, gure sistemak izan ditzaken birusak ezabatzeaz gain, horiek eragindako kalteak konpontzeko sistema bat gehitu diote. SmartClean izeneko teknologiaren bidez, birusek eragindako kalteak konpontzen ditu biruskontrakoak.

### Nola eskuratu

*Panda Antivirus Titanium* etxeko erabiltzaileentzat pentsatutako biruskontrakoa da. Erabil erraza eta merkea.

Produktu horren salneurria 4.900 pta. ingurukoa da, eta euskarazko bertsioa [www.elhuyar.com/denda](http://www.elhuyar.com/denda) helbidean ere eros daiteke. 

## IBMk disko gogorren edukiera eraberritu du

IBMk garatu berri duen teknologia berriak disko gogorren edukiera eta dentsitatea izugarri handi dezake eta 400 Gb-raino iritsi. AFC (*antiferromagnetically coupled*) izeneko teknologia horrek rutenio-geruza mehe bat ezartzen du disko gogorra osatzen duten diskoen gainean, eta horrela, horietako bakoitzak edukiera handiagoa du. Berrikuntza horrekin, disko gogorrek ez dira garestitzen, AFCak diskoaren dentsitatea eta edukiera handitzen baititu, diskoak edo biltegiatze-buruak gehitu beharrik gabe. Oraingoz teknologia ez dago guztiz garatuta, baina une honetan disko gogor batek 20 Gb-ko edukiera baldin badu haz-



ARTXIBOKOA

bete koadroko, IBMk kaleratu dituen disko gogor berrien 25,7ko edukiera dute, eta 2003an hazbete koadroko 100 Gb-ko edukiera lortzea espero dute. Horrela, PCrako disko gogor arrunt batek 400 Gb-ko edukiera izango du eta eraman-garrietako batek 200 Gb.

## Mugikorra kargatu bizikletan zabiltzan bitartean



ARTXIBOKOA

Ikonglobal konpainiak ziklistentzat interesgarria izan daitekeen *Pedal & Power* izeneko gailua merkatu-ratu du. Gailu horren bidez, telefono mugikorra karga daiteke bizikletan goazen bitartean, pedalei eragin ahala dinamo baten indarra erabilia. Bizikletetan argia izateko erabili den sistema bera da, eta,

diotenez, ordubeteen karga daiteke telefono mugikorra. Informazio gehiago: [www.infoglobal.com](http://www.infoglobal.com).